

DEPORTEA

Gaur egunez gure erriak buruz bera dabilzan gauzea deportea dala esan bearrik ez dago. Baña deportista, ondoreko eta gure errietako kristiñau guztiak deportea zer dan eta zelan begiratu bear dan ez dakie. Au dala ta, ondo egongo da Pio XII-nak Bilboko Atletiri agertu eutsazan erakutsiak ekartea. Ara batzuek:

1.—Sarritan etorri iataz, zuek gaur legez, beste ekipo asko, eta zabalik egon dira beti gure atearik; baña zuentzako aparteko era batean: zeuek zarielako.

2.—Berba oneek ez uste izan zuen futbolista fama aundiagaitik diñotsuedazanik; ez, nire belarrietara eldu dan beste entzute bategatik baño; eta entzute onek beste guztien ganetik ipinten zaitue: ekipo aundi bat zarielako, bai futboleant, baña batez



VIII URTEA - N.º 87

ZEZELLA (2)1962

DEPOSITO LEGAL SS. 1092-1959

ANAITASUNA

SUPLEMENTO DE LA HOJA «ANAITASUNA» DE GUIPUZCOA

be erlijio eta barruko jokoetan; deportista bizitza eta arimako bizitza, biak batera, ondo eroaten daki-zuelako.

3.—Zorionak, seme maiteak, Italiako lurretan egindako gauza ederragaitik; deportista ona izatea ez da beti irebaztea ta; ori baño geiago, ikurrin bat ondo tente iztea.

4.—Deportia, eta batez be futbolea, kristiñau birtuteen eskola bat izan leike: norberantzako eta bestientzako. Ain eskatzen iatzue sakrifizio asko!

5.—Deportistearen birtuteak: apaltasuna erakuslearen aurrean; ausarditasuna egoera txarretan; leialtasuna jokuan; espiritu aunditasuna bear dan moduan galtzeko; karidade aundia bestea mindu barik irebazteko.

6.—Bestientzazko birtuteak: ixentatutako tokia ondo artzea; norbearen txaloe alde batera itxirik ekipoari laguntzea; bear dan legez eta al dan guztia emotea.





"Zure seme ori, zurea baño Jaungoikoarena da geiago".

Paris ondoko erritxo batean, 31 urteko aita batek bere semetxoia il dau. Zer dala-ta?

"Zopea jaterik ez eban nai eta jo egin neban" —autortu eban epaillearen aurrean.

Eta bai jo benetan! Il arte!

Andik egun batzuetara, au be Prantzian, andra bat, Andrée Pebeyre, juzgatua izan da. Zergaitik? Bere iru urteko alabatxua il daualako.

Umearen gorputzean 26 zauri eta jostorrazt zaxtadak aurkitu dira, atzamar bat maillukaz zetua eukan eta ekinomikako txapa gori gaiñean ipiñiaz egindako erre-unak.

Andrée Pebeyre-k, azken zigorra emon eutsolia jakitean, zergaitik kondenatu eban bera, beste ainbeste ama libre egoazalarik, itaundu eban.

Kontuz gurasoak! Gurasoak, kontuz! Zure seme ori, zurea baño Jaungoikoarena da leenago. Jainkoaren errespetuz asi egizu seme ori. Semeak ez dira trapu zarrak legez ostikopean ibilteko. Zigorru bai, baiña merezi dabenean eta egundo be ez merezi baiña gogorrago.

Bigunegi ez, baiña gogorregi be ez!

* * *

Amaren bidea jarraituz, Ingrid Bergman-en alabak bere lenengo ezkontza ausi dau. Urte ta erdi baiño ez da ezkondu zala. Maitasunez urtu bearrean ebillen itxurea, eta, iñori ezer esan bage, gau batean ezkondu zan. Gaur, zine artisteen artean sartzeko, gizona lağa dau.

Artista izateko iru edo lau biderrez ezkondu bear ba-da, ara or Ingrid bide zuzenetik.

Errua norena?

"Umeak zer ikusi, a ikasi" —esan eban lenakoak eta etzan makala euren jakituria.

ANDRAZKOA NAGUSI

Egundoko gertakizun bat jazo da Ingalterra-ko eleiz batean. Ezkontzako elizkizunean egoazan

lenengo orritik dator

7.—Norberaren barruko bizitzan be olanxe zaindu bear da sarritan kanpua, jokua irebazi gura bada beintzat: arrizkoa datorrenian atzeratu eta bear dan denporan aurreratu.

Gurasoentzat

danak zorabiatu egin ziran. Senargaia izan zan lenen jausi zana. Gero ezkontzako aitabitxi jaustean bekokia edegi eban eta beste bat ipini bear izan eban bere orde. Abadea bera be jarleku baten bearrean egoan sakristira orduko. Bat bakarrik gelditu zan tente: andregaiia.

Eta esan gero andrazkoak aguro biotz-ikaratzet direala!

BENETAN ALA ADARRA JOTEN?

Williams Newman, Ingalterra-ko osagileak diñoanez buruko uleen koloreak egiten dau ezkonduen arteko zoriona. Ule illun edo gaztain kolorekoak daukezan andra gizonak ei dira zorionsueak. Ortik asi eta geroago eta gitxiago ule baltzak eta gorriak, gaztain kolorekoak eta argi onduluak, baltz onduluak, eta azkenik gaztain kolorekoak eta baltzak.

Ez aaztu, ba, ezkongaiak eta kontuz ibilli!

—Baiña orretarako ez da aldatu bearko uleak kolorea, ezta Williams?

Ez nekian zoriona ain merke egoanik.

ASZENSORE BARRIA

Milan-en gertatua da.

Sartu zan andra gazte bat aszensor-een eta tik sakatzen deutso botoitxoari, eta geldi, aszensorak ez dau igoten. Sakatzen deutso barriri be eta geldi! Eta oster a be, eta geldi! "Argirik ez dago ala?" —itanduten deutso atezaiñari. "Bai, erantzuten deutso, argia bai baiña aszensore ori barrira da eta ume bateren pixua gaitik ez dau igoten".

"Pixua ete da ba ume ta zarreen esaugarria?" esanaz an doa gure andra gaztea mailletan gora "umeak" legez.

Baekian aszensor-ak zenbatekoa zan pixua, baiña norena zan ez.

Arriola-k

8.—Aurrera ba, seme maiteak, eta ejenpla ona emon alde guztietan; deportistak lez, gizonak lez eta kristañoak lez. Egundorren diak eta ederrak opa deusuedaz, eta Jaunaren laguntasuna izan dedilla beti zuekin.

Antonio Zubizarreta

NESKEEN NABARMENKERIA

Bizkaitar neska maitea, gaur zeuregana
ator zeozer esan guran. Bear bada, artiku-
laturu onen titulua ikusi ondoren apur bat
asartu egin zara. Ez daukazu zelan asar-
returik. Ez jat aih gogokoa inoren kontra,
ta batez be emakumeen kontra idaztea.
ANAITASUNAK "ANAITASUNEAN" idatzi
bear dauz bere artikulua. Baiña "anaita-
suna" onek ez dau esan gura egia esatea
guztizta daukagunik, ez. ANAITASUNAK
ta EGIK bat-batera joan bear dabe: Anai-
tasuna, Egia.

AUNDIKERIA ASKOTAN ORDAINDU EGIN BEAR DA!

Aundikeria, ona emen gaurko pekatu-
rik aundiera. Gaurko pekatua esan dot, baiña
betiko pekatua esan bear neban, bai, beti-
koa! Lelengo pekatua aundikeri bat izan
gure. Gure lelengo gurason pekatua, aun-
dikeri bat izan zan. Gure gaurko naziña
daukagunik pekatua, aundikeria da; zerta-
ko gastetan dabez euren diruak? Mundu
gauraren aurrean zein baiño zein aundia-
rik agertu daitez. Aundikeria da gaur-
ko naziñoen pekatua; aundikeria da gaur-
ko gizartearen pekatua; ta..., parkatu gaz-
te biotzekuok, aundikeria da zuen gaurko
pekatu-rik aundiera.

Zenbat neska polit, baiño arro, geldituten
dira ezkondu barik! Zergatik? Eurentzako
Jaungoikoak aparte egindako mutillik ez
daukelako aurkituten. Neska asko mutilla-
ren diruan, edo tituluan, edo aunditasunean
baiño besterik ez dira kargututen; ez dira
gaurtarutuko mutilla biotz-onekoa, elizko-
n, biargiña, apala bada, ez. Lelengo mai-
tan dirua; bigarrenetan titulua; ta iruga-
rean... zer? Ganorabako familia!

Neska asko, danak ez!, erririk erri ibiltzen
dira titulodun mutil bategaz maitemindu-
rik. Tituloduna, diroduna, fama aundiko
mutilla bear dabe; zertarako? Senarraren
gaurtearen bidez eurak be fama aundikoak
dutezen. Zer itxaron geinke neska
gaurteatik? Zer itxaron geinke neska oneek
gaurte edo formau daitezkan familietatik?
Aundikeria franku. Anaiatzu zorion bage-
rik aurkituten dira diro asko ta fama aun-
diko familietan! Titulodun edo diroduna-
rik ezkondu arte estu; ta ezkondu gero
gaurte ta zoritxarra franku. "Bere burua
gaurte ipini gura dabena, avaldua izango
du", esan eban Jesus-ek. Jesus-en berbak,
Jesus-en berbak dira neskatxo! Aundike-
ria askotan beintzat, ordaindu egin bear
daukagunik, ezkondu arakoan; beste
gaurtean, ta amen ezta asko obeto!, "nes-
katxoaren..."

NABARMENKERI SANTUA BEAR DOGU!

Neska geienari, danari ez esatearren, ezi-
ko amets aundi batek ots dagie barruan.
Gaurte artista famatu bat ule zuriz, edo
gaurte, edo baltez apainduta ikusten ba-
te, eurak be ule zuriz, edo gorritz, edo
baltez apainduko dira. —"Noiztik ona naz
artista ori baiño gitxiago? —esan daroe

euren barruan—; Artista ori baiño motza-
goa naz ni nunbait? Ez orixe!..." Eta au
esan ondoren, etreko ondasun guztiak gas-
teu bear ba dira be, ez da geldituko areik
eta artistaren antzekoa kalean agertu arte.
Bardin gertatu oi da aldizkariaren baten ikus-
ten dan fotografiagaz edo radiotik entzun
oi dan abots ederragaz be. Baiña, zorio-
ne, edo zoritxarrez, neska guztiak ez dira
zine-zaleak, ez aldizkari-zaleak, ez radio-zu-
leak. Baiña, zuek be, neska maiteok, ez
uste izan aundikeri-arriskurik ez daukagun-
ik. Zuentzat be ba-dira arriskuak. Esate
baterako, baserrian bizi zara. Zeure auzo-
ko neskaren bat kalera ezkondu da ta on-
do bizi da. Notizi onek inbidia emoten deu-
tsu, eta zeuri be kalera joateko amets zero
bat sartu jatsu. Noren inbidia euki bear
dozu zuk? Jaungoikoak danak kalerako
egin dabezela uste dozu? Zergaitik ez zara
konformaten zeure bizi-lekuagaz, zeure erri-
txoagaz? Neskatxo, ez gaitzean arroak
izan! Beste neska guztiak "sentimentuzko
mundutxuagaz" zoratuta ba dagoz be, zu,
bizkaitar neska, "egizko munduan" bizi
zaitez. Askotan, zoriona gitxiaren uste dan
tokian aurkituten da. Ez eizu euki, bada, ez
artisten inbidirik, ez ule-gorridunaren
inbidirik, ez "narru-gorrian" dabilzanen in-
bidirik. Zoaz egizko-bide zuzenetik, apal-bide-
tik, garbi-bidetik!...

Idoyaga-tar Xabier



"Zenbat neska polit geratzen diran eskondu barik".



"MATER ET MAGISTRA"

"Mater et Magistra"ren egilea"

Egia, justizia ta maitasuna

Gaurko bizimoduak erakusten daben aurpegi illunena:

"Jaungoikoa ukatutea".

Leku danetan aitatuten da gure Aita Santu gozoaren izena. Eta arrazoiagaz! Bere egitekoak eta bere arazoak ikusi ze besterik ez daukagu: benetan aundiak gero! Larogei urteko agure biozdun onek gazte-giroa emon deutsa Eleizeari; bai, gaztetasuna, indar-barriztea...

Eta ganera, onezkero eukiko dozue oraintsu atara daben Enziklika jakingarriaren barri. Bai orixe. Benetan erakutsi aundikoa danontzat gaurko soziedadean, "Mater et Magistra" izena daroan Enziklika au. Miragarria benetan! Emen jabilku soziedade gixajoa, problemaz leporaiño josita, illunpe utsetan nora joan ez dakiala. Bai, nora jo ez dakiala... Eta igarrian be, Aita Santuak Enziklika onegaz argi egiten deutsa. Ona

emen, bertan agiri diran gaur-eguneko problema nagusienak, Aita Santuaren berba beroak ondoren doazala:

1.—Komunismoa: *biergiñari ogia larrasko barik eskeinduten ondo dakiana, baiñagizonari zor jakozan libertade ta begirapenaren trukean. Aita Santuak olan diño: "Bakotxa-berak bere ondasunak eukiteko eskubidea beti izango dau, Jaungoikoak emon deuskun desegin-eziñeko berezko eskubidetik dator lege au-ta".*

2.—Kapitalismua: *batzuk aberatz eta beste guztiak mixeri gorrian. Kolonialismo okerra be bardin: indar gitxi daukeen naziñoen kontura bakotxarena aberastutea. Aita Santuak auxe diño: "Ekonomian bide zati-*

tarra daroa, dabezan ondasunak bear dan lez bere menpekoen artean banatuten ez dituan erriak". "Naziño guztiak, famili bateko anaiak legez, alkarrerri lagun bear deusoe: asko daukarak besteeri emonaz, danak euren ekonomia bide onean ipiñi daien".

3.—Totalitarismua: onek, komunismua legez, libertatea ta eskubide osoa kenduten deuta gizonari. Gobernua izaten da onelakoetan danaren jaun ta jabe. Eta Naziñoa gobernuaren menpean barik, gobernua Naziñoaren menpean egon bear dau. "Estaduak zaindu, eragin, lagundu ze beste egin bearik ez dauko. Naziñoa bere gizonakaz", diño Aita Santuak.

Ta azkenez, Enziklika au amaitukeran dinosku Aita Santuak: "Teknika ta ekonomia-aurrerapenak bide ezin obea eroan arren, gaurko munduak ez dau aurkituko justiziarik ez bakerik, gizonaren Jaungoiko-semetasun dignidatea bear dan maillan jarten ez badau. Ta au, "Jaungoikoa dalako justizi, egi ta maitasunaren iturri bakarra": eta orregaitik "bere ta bere" alboan bizi diranen aretiorik amorrotuena, Jaungoikoa eleizarako bakarrik gorde ta eguneroko negozioetatik jartiten daben gizona da". Jaungoikoagandik eskapan gabiltzan bitartean, gure gizartea zatitua ez da osotuko. Ez da gutxiagorik be.

Eta Eleizearen dotriña ta bere deia ez da kuriosidade bat legez entzun eta bertan bera ixten dan traste bat gero: ezpabe, ondó ausartu ondoren, geure bizitzan zear billurik barik ercin bea dan azi bat baiño.

Bai, irakurle, badakit noraiñoak diran, gure geregoikeriaren sustrai sakonak eta zenbat sakrifizio eskatuten jakun Eleizearen esan au betetzeko. Baiño ez dago besterik: egia ta justizia nai badituzu, zure bizitza trankil-gozoa itxita, alaranka bada be. Eleizeak erakusten deusun aldatz gorrian gora jo bear dozu: bestela katolikua ez baiña txori-jabola biurtuko zara...

Ona emen, ba, bear dan baiño laburrago bada be, gure Aita Santu aundiak gaurko problemari buruz agertu daben burubidea: kristiñauen egin bear bakarra! Ondo artu daiguzala guztion Aitaren berba bedcinkatuak.

Jauna, Zeuk emon deuskuzu, beragandik Zure berbea artu daigun eta egiazko bizitzaren bidea ikasi daigun. Eskerrak, Jauna.

Anai Yon Zabalgo

ZEUENTZAKO

Jente asko eidago gure errietan, errebista onetan zeozer pozik idatziko leukena. Berandu jakin dot. Pozik artzen dot albistea.

Gura dozuenean asi, eta pozik artuko iatzue.

Eldu dira len be batzuek Ondarru eta Mundakatik, eta ondo politak.

Nai dozuen guztiok ona idatzi:

P. ANTONIO ZUBIZARRETA

PP. Franciscanos **FORUA** (Vizcaya)



TXOMIN ZORRIREN EZKONTZA

Zelebriagoa zan zelebriagoa nik diñotan mutil au! Baldar eta traskillagorik ez dot sekula ezagutu. Kitanoak eurak be ez a bestean. Ezta!

Gorputza oker-okar eginda, bizkarrean maleten bat eroiela antz emoten eban. Euki be gero baeukan tontor bakotxik!...

Janzkeran barregarria, iñor izatekotan. Praka ta alkandora zar-zarrakaz beti. Adu-rra be baerion aotik ugari. Ta tontolin bat irudian. Baña listoa zan, oso listoa deganiñoa alakoa!

Txomin Zorri deituten eutsela? Asko ar-dura eutson berari, barre ordeztxikitotxu bat emongo baeutsen...

* * *

Igarriko zeinkie, irakurleok, zein buru-tasun etorri yakon bein gure mutil oneri? Ezkondu egin bear ebala, ta ezkondu egin bear ebala, edadea be baeukala-ta! Bero asi zan gure mutilla burutasun onegaz.

Baña gizajoak ez ekizan, antza, neska-toen gustoak.

—Txomin Zorrigaz ezkondu? Jajai!... Tximiñoi bat baño motzago zan aregaz!...

—Ezetz. e? Ondo dago, ondo. Mustur-musturretan joko zaituedaze ba danok, sorgin-petral-erriok!

Ta gure Txomiñeri bere biziko gogoraki-zun bat emon eutson buruak. Ezkondu zan, bai, ta auzoko neskarik ederren eta aberatsen-gaz ezkondu be. Miren Arantxagaz beragaz, aor!

Zelan irebazi eban Miren Arantxa? Ori itxi bere kontura. Beingoan asmauko deusku iñoizko erarik politena-ta.

Miren Arantxa guraso eta anal-arreba bakoa zan. Neskamea eta bera bakarrik bizi zirean etxe eder atan. Txomiñ Zorri baño urte bi zarragoa zan. Baña zar-izate onek ardura ete eutson gero gure Txomiñeri? Bai zara! Miren Arantxa eder eta aberats zan guztiz, ta Txomiñ Zorri lako ogei lillura-tuteko naikoa zan neskarik. Untzea au eban Txomiñek: Miren Arantxaren blotza zelan irabazi.

Baña, bai, agoa zabalik geratzeko egoan mutilla!...

Illuntze-aldean Miren Arantxanera joan-da, bere neskameagaz egin eban berba. Txomiñek, abotsik gozoenagaz, agertu eutsa-zan bere burutasunak neskameari. Lagun izaten bayakon, ondo baño obeto sarituko eban gero.

Sari on baten ordeztz ez eutsan lagunduko ba neskameak Txomiñ Zorri! Bai pozit be!

Ta gau aretako, onoko au gertu eben bien artean:

“Txomin Zorri, ixil-mixillean, Miren Arantxaren oe-azpian sartuko zan. Miren Arantxa oeratutakoan, oiari bultz eragiñaz, esango eban Txomiñ Zorri: —“Miren, Txomiñ Zorrigaz ezkondu bear dozu. Osterantzean neugaz zaroat”. Miren Arantxa, jakina, neskameari deika asiko yakon. Orduan neskamea joan, eta gela guztia ikusiko eban, iñor egoanentz. Ta, amets bat izango zala-ta, barriro joango ziran biok lotara. Iru-lau biderrez egingo eban au. Ta azkenean... baietz Miren Arantxa Txomiñ Zorrigaz ezkondu!...

* * *

Txomin Zorriren poz-ikarea burubide au izan ebala-ta!...

Eldu zan gaba. Amabiak ur-urrean... Ai ene; Amabiak jotean Miren Arantxak bota eban txillioa!

—“Juani! Lapurrak! Erdurarin!...”

—“Zer lapur edo! Zer jasoten yatzu, Miren?”

—“Ara, Juani!...”

Ta Mirenek jakin arazo eutsan gertaturikoa. Neskameak, baño, iñor topau ez gela guztian.

—“Ametsen bat izango zendun, Miren. Egizu lo, ezere ardura barik”.

Nekez baño, ordu erdi barru lo egoan Miren Arantxa. Txomiñ Zorri, ostera, iñoizkorik itzartuen.

—“Ondo yoak gauzia! —esan eutsan kolkoari— Tirok, beste apaskadatxu bat”.

Ta lengoa bera egiñaz, lengo ber-bera esan be esan eutsan. Zerau: Txomiñ Zo-

rrigaz ezkontuten ezpazan, beragaz eroango ebala.

Miren Arantxaren barrua nonk jakitera emon? Azurretarañoko bildurrez egoan gizajea. Ta ia berbarik be egin ezliñik, deitu eutsan bigarrenez Juaniri laguntasun eske. Juanitak, baña, oraingo onetan be ñor topau ez kuartu barruan.

Norena ete zan gero abots a? Jaungoikoa rena, bear bada!... Barrero entzungo baeban, baletz erantzun bearko eutsan: ezkontuko zala Txomiñ Zorrigaz.

* * *

Ordu bete inguru igaro da. Gaua bake-bakean... Katuen miau bat be ez da entzuten inguruan... Onetan, Txomiñ Zorrik, lepoagaz oea artu-ta, iñoizko bultzadarik aundienak emonaz, diñotso abots gogorrez Miren Arantxari:

—“Txomin Zorrigaz ezkontuko zara, ala neugaz zaroat?”

—“Bai, ezkontuko naz, ezkontuko naz”...

Ta gizajea, taupadaren taupadaz biotzak urten bearrean, neskamearengana joan zan arrapaladan, gelatik igeska.

Bien bitartean, gure Txomiñ Zorrik, zer? Zast!, iges egin ehan bere etxera. Eta —ez deustazue siñistuko baña— gau ta goiz guztia igaro ebazan bizarra kendu, jantzi bariak ipiñi ta gorputz-arpegiak txukun-txukun jartzen.

8garren orritik dator

nean jeneral guztiak menperatu ta “trabajos forzados”-etara eroanak izan dira. Ala ta guztiz be Arjelia De Gaulle-entzat agin ustel bat da: geroago ta ustelago.

ATZO, BAI; TA GAUR, EZ

Komunistak XXII-garren batzar nagusia izan dabe. Stalinismua kondematua izan da. Bere azurrak Plaza Gorriko mausoleotik atareak eta Kremlin-en azpian ipiñiak. Stalin dala ta ez dala, Mosku eta Pekin ez dabil biz batera. Malenkof, Vorotxilof, Molotov, Yukov, baztertuak izan dira. Krustzev-ek arerioak il ez ezik baztertu egiten dauz. Zelako diplomazia berana.

TELOI BARRIA

Krustzev-ek alemanitarren aurrerapena ezin ikusi dau. 1945-ñ legez ikaratu egin da.

Goizeko amaikak inguruan, Miren Arantxa gau atan jazorika esaten etorri yakonean, Txomiñ Zorrik bere biziko arpegirik alai eta gozoena ipiñi eutsan, ta poz-adurretan artu eban “here Mirentxuren” barri zoriotsua.

Bene-benetan be gero, Jaungoikoa on-ona ete zan gero gure Txomiñ Zorrigaz?!...

* * *

Illabete barru, alkarren senar-emazte doguz gure Txomiñ Zorri ta Miren Arantxa.

Arratsaldietan-da besotik oratuta, emazteagaz, pasioan ikusten ebenian:

—“Ola, Don Txomiñ! Arratsalde on” —agur egiten eutsen erritarrak.

Ta Txomiñ Zorrik, irribarrerik gozoenagaz:

“Baita zueri be!” —erantzuten eutsen.

(IPUIN-BARREKA liburutik jasoa)

**Aita Felix Bilbaoren liburu polit
au salgai dago.**

Eskatu gilleari:

PP. Franciscanos


FORUA

Berlintarrak, komunismuaren bildurrez danak sartalderantza datoz. Lotsa au tape-tako errusitarrak, Berlin erdi-erditik ebategiaz, ladrillozko teloi barri bat jaso dabe. Berdin da. Berlinitarrak bardin datoz. Kennedy-k esan deusku: “Berlin-en eutsi egin bear da, eutsi”. Berlin-go goraberatan errusitarrak eta iankitarrak, danak, soratuta daukoguz.

GALBAO

Enrike Galbao Portugal-ko ejerzitetik urtendakoa da. Mutiko batzuk armatu ta “Santa María” trasatlantikuera atrapatu dabe. Ioian jentea aste batzuetan ikaraz ta bildurrez bizi izan dira. Azkenean, Galbao Rezife-n entregatu eta “Santa María” Portugal-era ekarria izan da. Galbao-k Angolara joatea gura eban. Aste batzuk geroago Angola-n gerra asten zan. Goa be portugesari eskuetatik baioakie.

Arana-k



1961 OLAKOXEA IZAN IAKU

1961-ko urtea periodisteen lagun aundia izan da. Aibeste barri eder euren jakinaiari emon dautsoz. Ez dira izan danak, zoritxarrez, atsegingarriak; sarritan garratztoak. Ona emen gertaera aundienak.

KONTUZ: RADIKTIBIDADEA!

Nuklear armako pruebak debekatuak egon arren, errusitarrek 50 megatoiko bomba nagusia bota dabe. Ala izan arren Errusia-ko periodiku eta radioek erritari ez deustoe ezer esan, radiaktibidadearen bildurra izan ez daien. Orrela dira politiku asko; guzur utsak. Kristo-k esan eban legez illobi zurituak. Radiaktibidadearen bildurra danori azurretaraño sartu iaku.

IGETARGIRANTZA

Errusitarrek goialdetara lenengo gizona jaurti dabe: Gagarin. Lurrarri bira batzuk emon ondoren, Errusia-n jatsi da. Aste bi geroago iankitarrak beste gizon bat bota dabe, Shepard. 200 km. gorantza iruntzi dauz. Errusiatarrak barrero be Titov bialdu dabe eta ogei ta lau ordutan lurrari amazazpi bira emon deutsoz. Goialdeko burruka gogor onetan errusitarrek dira lenengoak.

KUBA-KO GERRA

EE.UU.-ek bialduta, antikastristak marxismuaren atzaparretatik Kuba ateratera joun dira. Kastro-k ejerzitu guztiak astindu ta antikastrista guztiak zapaldu dauz.

Ona emen Krustzev-ek Kennedy-ri bial-

du deutsona. 13.000 km²ko proiektitek dudu koguz. Neurtu, egiten dozuna. Maiatzaren 1-an Kuba "Nación Socialista" aitortua izanda. Iankitarrak ureriod musturren aurreko daukie.

Mr. H. IL DA

Dag. Hammarsjöld, batasuneko nazioen sekretarioa iruillaren 17-an il iaku. Tshonbe-guna ioiala abioia jausi ta kiskaldua izanda. U'Thant, birmanitarra, sekretario buri izentatu dabe. Politika bardina duroa. Tashko, errusitar ta beste aibeste komunistak Kongo-n garbitu dauz.

KATANGA

Elisabetyville ikaragarritzko gerra tokian biurtu da. Batasuneko nazioak alde batetik eta katangatarrek bestetik. Tshonbe-k Mobutu-ren azpian ez dau gura egon. Gauza guztien zuzterra: dirua. Urtero Katangak baimilla milloi pesetaren balion ateraten dau minetatik. Mobutuk diru au bereganatu gura dau; Tshonbe-k ezetz diño. Eta bilarlean gerra ta gerra. O.N.U.-k atserriko idar guztiak jaurti gura dauz Errusia sartu ez dedin.

ESKU BARRIA

Kennedy EE.UU.-ko lendakari izendatua izan da. Itzelezko problemak agertuak iakoz Kennedy-ri. 5.000.000 beargin EE.UU.-en paratuta, Hispano-Amerikaren gorroto. Europa-ren epellasona ta... Errusiak dakarren mailu otsa. Kennedy-ren oroimenez Roosevelt-en irudia dago: berbetan labur eta egiñetan luze. Bear-bearrekoa dan politikak barri baten zai dago mundua.

FRANTZIA-N NASTE-BORRASTEA

De Gaulle'ek Arjelia-ri emondako askatasuna ejerzituak txarto artu dau. Lau jenerala, onenatarikoak, beren kontra alisa dira. Frantzi osoa gerra zibil baten bildurra bizi izan da. De Gaulle'ek esan dau: "Daukadan guztiakaz burrukatuko dot". Azke-